

Generakzioa: Omenaldia ehun urtetik gorako pertsoneri

Pribatutasun-politika

Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikulua betetzeko, **honako hau jakinarazten dizugu:**

Tratamenduaren arduraduna Gizarte Ekintza Saileko Administrazioako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia da (Ugaskobidea 3 bis 48014 Bilbo).

Datuen babesaren arloko ordezkaria Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atala da (Kale Nagusia, 25 – 48009 Bilbo).

Jasotako datuak beharrezkoak dira **Bizkaian ehun urtetik gorako pertsonentzako omenaldiari** buruzko argitalpena kudeatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian; omenaldiaren helburua da haien bizitza-ibilbidea eta Bizkaiko hazkunderari egin dioten ekarpena aitortzea eta adinekoen parte-hartze soziala zein zahartze aktiboa sustatzea.

Omenaldi honetan parte hartzean, **baimena ematen duzu** ekitaldiaren argazkiak eta aipamen bibliografikoak Bizkaiko Foru Aldundiaren webeko «Generakzioa» gunean nabigatzen duten pertsoneri jakinarazteko.

Zure **datuak eskuratzeko**, zuzentzeko edo ezabatzeko eska dezakezu, tratamenduaren erabilera mugatzeko, edo tratamenduari aurka egin diezaiokezu, idatzizko komunikazio bat igorri Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari. Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro-gaietan laguntzeko edozein bulegotan aurkez dezakezu idazki hori, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein lekutan.

Eskubidea duzu, halaber, kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazioa jartzeko, alegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean.

Halaber, baimena kentzeko eskubidea duzu, aurretik egindako izapiddeen zilegitasunari eragin gabe.

Eskubide horietakoren bat baliatzeko aukera mugatu egin daiteke bateraezina denean botere publikoen jardunarekin edo aplikagarria den araudiaren arabera legezko betebeharrak betetzearekin.